



Espedientearen kodea: 2023ZZ020001

Espedientearen gaia: Oiartzungo kirol kluben eta elkarten funtzionamendu gastuetarako eta beraien jarduna sustatzeko 2023ko dirulaguntzak.

Titularra: OIARTZUNGO UDALA

EBAZPENAREN ZIURTAGIRIA

Oihane Mallagaray Revilla, Oiartzungo Udalaren idazkari naizenak:

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Osoko Bilkurako Batzarrak, 2023/03/29n, beste batzuen artean ondorengo akordioa hartu zuela:

“OIARTZUNGO KIROL KLUBEN ETA ELKARTEEN FUNTZIONAMENDU GASTUETARAKO ETA BERAIEI JARDUNA SUSTATZEKO 2023KO DIRULAGUNTZEN BANAKETA ONARTZEA.

Kirol teknikariak idatzitako “Oiartzungo kirol klub en eta elkarten funtzionamendu gastuetarako eta beraien jarduna sustatzeko 2023ko dirulaguntzak banatzeko oinarriak” onartu zituen Oiartzungo Udaltzarak 2023ko urtarrilaren 25ean.

Oinarrian baita, elkarteek eskabideak aurkezteko deialdia ireki zen otsailaren 10ean GAOn argitaratutako iragarki bidez, 30 egun naturaleko epeaz. Epe horretan zazpi eskaera aurkeztu dira.

Aurkeztutako dokumentuak aztertuta eta oinarrietan jasotzen diren irizpideen arabera, Kirol saileko arduradunak, gaiari buruz egindako txostenean, eskaerak baloratu ditu eta lortutako puntuazioaren baita zerrendatu ditu. Gazteria, Kirola eta Hezkuntza ez arautua Batzordeak, 2023ko martxoaren 23an egindako bilkuran, aldeko diktamena eman dio proposamenari.

Horrenbestez, Udaltzarak honako akordioa hartu du:

Lehena.- Oiartzungo kirol klub en eta elkarten funtzionamendu gastuetarako eta beraien jarduna sustatzeko 2023ko dirulaguntzak honela banatzea:

ELKARTEA	Puntuak	1. ORDAINKETA		
		100%	1. ORDAINKETA (%60)	1. ORDAINKETA (%40)
OIARTZUN KIROL ELKARTEA	1272	30.691,69 €	18.415,01 €	12.276,68 €
OIARPE KIROL ELKARTEA	283	6.828,42 €	4.097,05 €	2.731,37 €
HAURTZARO KIROL ELKARTEA (Atletismoa)	269,5	6.502,68 €	3.901,61 €	2.601,07 €
TXOST OIARTZUNGO PILOTA KIROL KLUBA	227,5	5.489,28 €	3.293,57 €	2.195,71 €
HIRUKI BIRA GIMNASIA KLUBA	133	3.209,12 €	1.925,47 €	1.283,65 €
OIARTZUNGO SASKILAGUNAK S.K.T	46	1.109,92 €	665,95 €	443,97 €
DELTA KLUB HAIZE	7	168,90 €	101,34 €	67,56 €
GUZTIRA		54.000,00 €	32.400,00 €	21.600,00 €

Bigarrena.- dirulaguntza hauek ordaintzeko, guztira 54.000.- euroko gastu onarpena egitea, Oiartzungo Udalaren 2023 urteko aurrekontuko 1 1102.481.341.00.02 2023 diru- atalaren kontura (A-57/2023).



OIARTZUNGO
UDALA

Hirugarrena.- Oinarriak ezartzen dutenaren baitan, ordainketaren % 60 honako akordio hau hartzean egingo da, eta irailaren 30a baino lehen eta gastuak justifikatu ondoren, % 40a ordainduko da.”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araberan, Oartzunen, sinaduraren egunean.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU3b8f2172-9cfb-4774-bd18-74ecdef68e8d**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZZ020001-Ebazpena pleno/Ebazpena pleno (OIARTZUNGO UDALA)